

## TBAI fitxategiaren aldaketak TBAI pilotuaren bertsioarekiko

---

## AURKIBIDEA

1	SARRERA .....	3
2	ALDAKETAK TICKETBAI FITXATEGIAREN EGITURAN .....	3

## 1 SARRERA

Dokumentu horretan TicketBAI fitxategiaren formatuko desberdintasunak jaso dira, 2019-12-19an argitaratutakoaren eta TicketBAI pilotuko parte-hartzaileei emandako bertsioaren artekoak.

## 2 ALDAKETAK TICKETBAI FITXATEGIAREN EGITURAN

Jarraian zehaztu dira TicketBAI fitxategiaren egituraren desberdintasunak pilotuaren bertsioaren eta behin betikoaren artean:

- Bertsioa: Balioa 1.0ra aldatu da
- Hainbat hartzaile: Esparru berri hori gehitu da hartzaile bat baino gehiago ote dagoen adierazteko.
- Ordezkatzeko zuzenketaren zenbatekoa: bloke hori gehitu da, honako esparru hauekin:
  - o Zuzendutako oinarria
  - o Zuzendutako kuota
  - o Errekarguaren kuota zuzendua
- Fakturaren xehetasunak: bloke hori hautazkoa izatera pasa da, eta zerga-administrazioaren arabera, esparru horiek derrigorrez betetzekoak izan ahalko dira. Horrez gain, Deskontua esparrua gehitu da blokerak.
- Fakturaren zenbateko guztia: esparru horren derrigortasuna aldatu da, eta nahitaezkoa izatera pasa da.
- Jasandako atxikipena: esparru hori gehitu da.
- BEZ erregimenen gakoak eta zerga garrantzia duten eragiketak: 51 eta 52 gakoak gehitu dira:
  - o 51 Eragiketak baliokidetasun-errekarguan
  - o 52 Eragiketak erregimen erraztuan
- Lotutako/Salbuetsitako banantzea: errepikakorra zazpi iteraziora mugatu da.
- Lotu / salbuetsi gabeko banantzeak:
  - o Egitura errepikakorra izatera pasa da, gehienez ere bi iteraziorekin.
- Salbuetsi gabeko faktura: S3 balioa ezabatu da (ISPrekin eta gabe).
- BEZ xehetasunaren zenbatekoak:
  - o Errepikakorra sei iteraziora mugatu da.
  - o Errepikakorra nahitaezko gisa markatu da.
- Baliokidetasun-errekarguko eragiketa edo erregimen erraztua: esparru hori gehitu da.
- TicketBAI aztarnak:
  - o Aurreko fakturaren bidaltze-data: esparru hori gehitu da kateamendu-blokerak.
  - o Aurreko fakturako hash zifratuaren lehenengo karaktereak: tamaina lehen 100 karaktereetara mugatu da.
  - o TBAI lizentzia: esparru hori gehitu da.
  - o Fabrikatzailea: Izena erakunde garatzailearekin ordeztu da.
  - o Fabrikatzailearen abizenak eta izena edo sozietatearen izena: esparru hori ezabatu da.

### ZUZENKETAK:

- Fakturaren igorpen-data: adibidea zuzendu da, adierazteko dataren baliozko formatua gidioekin dela, eta ez puntuekin: dd-mm-yyyy.
- Bidaltze-ordua: adibidea zuzendu da, baliozko formatua adierazteko asmoz: hh:mm:ss.
- Hartzaileak: IFZ edo IDOtro esparruen derrigortasuna zuzendu da. Nahitaezkoak dira hartzaile bat jakinarazi nahi izanez gero.
- Faktura zuzentzailea: Kodea eta Mota esparruen derrigortasuna zuzendu da. Nahitaezkoak dira faktura zuzentzaile bat jakinarazi nahi izanez gero.
- Zuzendutako edo ordezkaturako fakturak: Fakturako Zenbakia eta Data esparruen derrigortasuna zuzendu da. Nahitaezkoak dira faktura zuzentzaile edo ordezkatu bat jakinarazi nahi izanez gero.

- 
- Erakunde garatzailearen herrialdearen kodea: esparruaren derrigortasuna zuzendu da, eta hautazkoa izatera pasa da.